



IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA. 2026. URTEA

Iruñeko Udalak 2026ko IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETArako deia egiten du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak –2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan– xedatzen duenarekin bat.

1.-XEDEA.-

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA. 2026. URTEA: Iruñean erroldatutako edo ikastetxea Iruñean duten gazteek egindako literatur lanik hoberenak saritzea da lehiaketaren xedea. Egile bakoitzak lan bakarria aurkezten ahalko du modalitate bakoitzean, euskaraz edo gaztelaniaz idatziak. Lan bera ezin izanen da bi hizkuntzetan aurkeztu.

Deialdi honetan aurkeztuko diren lanen GAI NAGUSIA *Nazioarteko garapenerako laguntza eta hegoalde globaleko herrialdeen errealitatea* izanen da, eta beraz, aldi honetan aurkeztuko diren lanek proposatu den gai horri heldu beharko diote.

Aurkezten diren lanak jatorrizkoak eta argitaragabeak izanen dira, eta lehendik beste inongo literatur lehiaketetan saritu gabeak.

Aurkeztutako lanek ezin izanen dute ez bultzatu ez erreproduzitu jarrera diskriminatzaile, xenofobo edo sexistarik, ezta pertsonen duintasunaren eta giza eskubideen kontra doanik ere.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

Bai euskaraz eta bai gaztelaniaz, ezarritako modalitateak "Poesia" eta "Narrazio Laburra" dira. Bi kategoria ezarri dira bakoitzerako:

- 14 eta 16 urte bitarteko gazteak (biak barne), eta 17 zein 18 urtekoak (biak barne).

Idazlanek honako luzera hau izanen dute:

- Poesia: 14 bertso gutxienez, eta 40 gehienez.

- Narrazio laburra: 2 orri gutxienez, eta 5 gehienez, alde batetik eta espazio bikoitza dutela, 'Calibri' letra mota eta 12 neurrian.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 6.800 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura:
90/33702/480000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:



Hiru sari (lehen, bigarrena eta hirugarrena) eta bi accesit (lehenengoa eta bigarrena) modalitate (poesia eta narrazio laburra), kategoria (14 urtetik 16ra eta 17tik 18ra) eta hizkuntza bakoitzeko (euskara eta gaztelania), diru-zuzkidura honekin bat:

- Lehen saria: 300 €
- Bigarren saria: 200 €
- Hirugarren saria: 150 €

- Lehen accesita: 100 €
- Bigarren accesita: 100 €

Sariei esleitutako diru-kopuruei dagokien atxikipena aplikatuko zaie, PFEZ dela medio.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Iruñean erroldatutako edo ikastetxea Iruñean duten gazteek parte hartzen ahalko dute. Erroldatzea ofizioz egiaztatuko da.

14-16 urtekoen kategorian, lanak aurkezteko mugaegunean 14 urte beteta izan beharko dituzte eta 17 urte baino gutxiago.

17-18 urtekoen kategorian, lanak aurkezteko mugaegunean 17 urte beteta izan beharko dituzte eta 19 urte baino gutxiago.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

BAI EZ

5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, tokia eta epea.-

2026KO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETARAKO IZEN-EMATEA ONLINE EGINEN DA.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

<https://letrajoven.pamplona.es/eu>

<https://letrajoven.pamplona.es/eu>

Webgunean PARTE HARTZEA izeneko gune bat dago, zuzenean eramanen duena izena emateko eta egindako lana entregatzeko formulariora. Horrez gain, beste gune bat gaitu da, LEHIAKETAREN OINARRIAK, deialdiaren oinarriak kontsultatzeko.

FORMULARIOA BETETZEKO JARRAIBIDEAK: Formularioa zuzen betetzeko, lauki guztiak bete beharko dira, agertzen diren ordenan:

1.- Lanaren egilearen datuak bete (guztiak dira nahitaez betebeharrekoak).

Izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

Identifikazioa

Jaioteguna

Telefonia

Helbidea

Herria



Helbide elektronikoa
Berretsi helbide elektronikoa
Ikastetxea
Aurkeztutako lanaren izenburua

2.- Zein hizkuntzatan idatzita dagoen aukeratu (euskaraz edo gaztelaniaz).

3.- Literatura-modalitatea hautatu (narrazioa edo poesia).

4.- Hautatu adina (14 eta 16 urte bitarte, edo 17 eta 18 urte bitarte).

5.- Igo literatur idazlanaren fitxategia. Fitxategi bakarra igo beharko da, PDF formatuan (sistemak ez ditu beste luzapenen bat duten fitxategiak onetsiko), honako izen honekin: IDAZLANAREN IZENBURUA.pdf (adibidez, UDABERRIA.pdf). Ezin izanen da inolaz ere aipatu, ez fitxategiaren izenean ez edukian, egilea nor den, ezta haren datu pertsonalik ere. Lana orriak zenbatuta aurkeztuko da, eta haren izenburua jasoko da, artxiboaren izenean ez ezik, lehiaketara aurkeztutako dokumentuaren hasieran ere.

6.- **BIDALI**: formularioa bidaltzeko, sakatu horretarako gaitu den "BIDALI" botoia. Izapide horrek EZ du amaitzen izen-ematea. Mezu elektronikoa bat jasoko duzu "Datu pertsonalak" atalean emandako helbide elektronikora, formularioko datuen laburpenarekin. Aurkeztutako datuak zuzen badaude eta akatsik ez badago, **BALIOZKOTU ETA IZEN-EMATEA AMAITUTZAT JO** ahal izanen da.

Baliozkotze-mezu hori formularioa bete eta berehala iritsiko da; posta elektronikoko karpeta guztiak arakatu mezua aurkitu eta lehiaketan parte hartzeko izen-ematea bukatu ahal izateko.

Behin aurrekoa amaitu eta gero, azken mezu bat jasoko duzu, honako hauekin: lehiaketan parte hartzearen **BAIEZTAPENA**, idazlanaren **IZENBURUA** (2. apartatuan emana), **IDENTIFIKAZIO AGIRIA** eta lehiaketan erreferentzia izanen duen **PLIKA-ZENBAKIA**. Mezu hori izanen da lehiaketan parte hartzeko egiaztagiria.

Lehiaketaren plataformara igotako idazlanak Udalaren zerbitzarian egonen dira, lehiaketaren azken fasea amaitu arte. Gero, sistematik kenduko dituzte, salbu eta saritutako lanak, zeinak Iruñeko Udalaren artxibo digitalean gordeko baitira eta sariketaren webgunean argitaratu.

Halaber, honako toki hauetan egiten ahalko da lehiaketarako izen-ematea eta lanen aurkezpena: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia - Kale Nagusia 2, behea) edo erregistro osagarrietan (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko Monasterioaren k. 2, behea; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapateria k. 40, behea).

Kasu honetan, interesdunek gutun-azal itxi bat aurkeztuko dute, eta haren barruan, lanaren kopia bat. Gutun-azalaren kanpoko aldean, honako testu hau idatzi behar da:

- **IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA. 2026. URTEA**
- Hizkuntza (euskaraz ala gaztelaniaz)
- Modalitatea (narrazioa ala poesia)
- Lanaren izenburua.
- Egilearen adina.
- Ikastetxea.



Gutun-azal horren barnean, beste gutun-azal bat sartuko da, itxita eta kanpoaldean lanaren izenburua idatzita duena, eta horren barnean, orri bat, egilearen datu pertsonal hauek adierazita: izen-abizenak, jaiotze-data eta jaioterria, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa, horiek guztiak lanaren egileari dagozkionak. Baldin eta lan batean ez badira egilearen datuak behar bezala ematen, lana ezin izanen da lehiaketan onartu.

Iruñeko Udalak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina jasota baitago Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuko (EB) eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko 216/679 Erregelamenduan.

Hurrengo paragrafoan adierazitakoa gorabehera eta parte-hartzaile guztien anonimotasuna bermatze aldera, baztertzen da lanak Iruñeko Udalaren edo beste administrazio batzuen erregistro elektronikoen bidez aurkezteko aukera.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bideetako edozein erabiltzen ahalko da.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2026ko apirilaren 17an amaitu.

Ondoren datorren paragrafoa ezarriko zaie bakarrik Iruñeko Udalaren Erregistro Orokorrean edo erregistro osagarrietan aurkezten diren lanei.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak jaso ez diren lanak suntsitzen ahalko ditu, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua:
- Epaimahaikideak:
- Idazkaria:

GAZTELANIAZ diren lanetarako:

- Epaimahaiburua: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Zinegotzi Ordezkaria. Ordezkoa: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaria.
- Epaimahaikideak: Hizkuntza eta Literaturako bi irakasle eta Nafarroako GGKEen Koordinakundeko kide bat.

-Idazkaria: Gazteriako teknikari bat. Ordezkoa: udaleko teknikari bat

EUSKARAZ diren lanetarako:

- Epaimahaiburua: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Zinegotzi Ordezkaria. Ordezkoa: Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaria.



- Epaimahaikideak: euskarako ezagutza aurreratuak dituen Hizkuntza eta Literaturako bi irakasle eta Nafarroako GGKEen Koordinakundeko kide bat.
- Idazkaria: Gazteriako teknikari bat. Ordezkoa: udaleko teknikari bat

Epaimahaiak organo eskudunari, hau da, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zinegotzi ordezkariari aurkeztuko dio sari-proposamena, horrek sari-ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezin lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ

Epaimahaiak proposatu ahal izanen du modalitate, hizkuntza eta kategoria bakoitzeko bi accesit ematea (lehena eta bigarrena), bakoitza 100 eurokoa.

Epaimahaiak eman gabe uzten ahalko ditu, aurreikusitako sariak oro edo horietako batzuk.

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoekz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratzen ahalko dira, eta hainbat komunikabidek zabaltzen ahal dituzte.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen alorreko idazkaritza teknikoak izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea: BAI EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

1.- Espresuki debekatzen da lanak idazteko adimen artifizialeko tresnak erabiltzea, eta beharrezko egiaztapenak eginen dira ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.



Sarituei sarituak izan direla jakinarazi eta sari-banaketako ekitaldira joateko gonbidapena egingen zaie. Joaterik ez badute, ordezeko bat bidali ahal izanen dute haien izenean.

Lehiaketan parte hartzeak berekin ekarriko du saririk jasoz gero sarrera libreko argitalpenak egiteko eskubideen lagapena onartzea, Creative Commons Aitortu- EzKomertziala - LanEraterririkGabe (by-nc-nd) lizentziapean. Lan horiek, ortografia berrikusi eta maketatu ondoren, <https://letrajoven.pamplona.es/eu> eta <https://letrajoven.pamplona.es> webgunean argitaratuko dira.

Halaber, Iruñeko Udalak ekimenak abiatzen ahalko ditu lanen berri emateko, eta irabazleek ere parte hartzen ahalko dute, beti ere elkarren artean ados jarrita.

4.- Lehiaketaren izaerari eta xedeari erreparatuz, epaimahaiak alderdi hertsiki literarioez gain aurkeztutako lanen zuzentasun ortografikoa ere kontuan hartuko du.

10.- ERREKURTSOAK.-

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar beren lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartzea eta horiei men egitea.

Lehiaketa hau garatzean eta oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen ahal diren gatazkak organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.